

**Ikastetxearen
Hezkuntza
Proiektua
Proyecto
Educativo
de Centro**

[ikastetxearen izena]

Aurkibidea

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa	01
2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak	10
3. Helburuak eta lehentasunak	14
3.1. Helburuak	14
3.2. Lehentasunak	16
4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak	17
4.1. Curriculumaren esparrua	
4.1.1. <i>Metodologia-aukerak</i>	17
4.1.2. <i>Ebaluazioa</i>	19
4.1.3. <i>Hezkuntza-eskaintza</i>	27
4.1.4. <i>Aniztasunari erantzutea</i>	34
4.1.5. <i>Orientabidea eta tutoretza</i>	39
4.1.6. <i>Hizkuntzen erabilera eta tratamendua</i>	39
4.1.7. <i>Prestakuntza eta berrikuntza</i>	40
4.2. Antolamenduaren esparrua	
4.2.1. <i>Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa</i>	43
4.2.2. <i>Parte hartzeko eredia</i>	45
4.2.3. <i>Bizikidetza</i>	46
5. Iraunaldia	49
6.- Ikastetxeko organigrama	50

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa

⬇ Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.

ARALAR ikastetxea, eskualdeko herri eskola desberdinetako ikasleak jasotzen dituen DBHko ikastetxea da. Kokapen fisikoari dagokionez, ikastetxeko instalazioak Alegian, bailarako herri handienetik, Tolosatik, bost kilometrotara aurkitzen dira, baina esan bezala bere inguruko landa herri txikiagotako ikasleak biltzen ditu (Altzo, Amezketa, Ikaztegieta, Abaltzisketa, Orendain, Baliarrain eta Bedaio). Eraikin berean Lehen Hezkuntzako ikastetxea eta alboan Haur Hezkuntzako ikastetxea dauzka.

Ingurunea aztertuz, inguruko herriek, txikiak izan arren, azken urteetan hazkundera jasan dute, etxe berriak eraiki baitira, eta haur kopurua handitu egin da. Baina ez dugu ahaztu behar guregana datozen ikasle kopuru handi bat **nekazal- girotik** datorrela eta **eskola txikietan** ikasi duela. Euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen maila oso altua da.

Ikastetxea aldiz, Alegian, bailara erdian kokatzen da, herri nahiko txiki batean. Ekipamendu sozial eta kultural aldetik baditu kirol ekipamenduak (kiroldegia eta frontoia) kultura-etxea, kz-gunea.... Gainera bost kilometrotara beharrezko dituzten ekipamendu guztiak dituzte (liburutegia, zinea, polikiroldegia igerilekua estali eta guzti...) eta Donostia era 30 kilometrotara dute. Nahiko herri euskalduna izan arren, badago etorkin portzentaia bat euskara ez dakiena eta kopuruz handia ez bada ere, gehitzen ari dena, baina gazte gehienek ezagutzen eta erabiltzen dute.

Ikastetxeari buruzko historia eginez, 18 urte pasa dira jadanik ARALAR institutua sortu zenetik 1996an. DBH hasi zenean 8 irakaslek, 80-ren

bat ikaslerekin, martxan jarri zuten institutua. Hasiera gogorra izan zen, baliabide gutxirekin eta tokia konpartituaz, baina **gurasoen laguntzarekin** kontatu zuten. Aipatu atal honetan **ikastetxearekiko Udalaren jarrera beti izan dela ona** eta hasierako urteetan Delegaritzara eskaerak egiteko orduan zuzendaritzakoei laguntzen zietela. Bere inplikazioa altua da eta horregatik mantendu eta sendotu behar ditugu harremanak.

Harez geroztik denetarik bizi izan da ikastetxe txiki honetan. Lehenengo ikasturteetan hasierako urduritasunek eraginda gora-behera asko izan ziren jendeak lekua bilatu bitartean: bi kidegoko pertsonak eta profesional-perfila elkartzen ziren, batetik; maisu-maistrak kidegoa; eta, bestetik, ertainetako kidegoa. Bakoitzak bere egiteko moduarekin, baina, guztiok helburu komun batekin DBH etapa berria ezartzea eta zentroa martxan izatea. Gaur egun, DBHko etapa errotua dago. Eraginkortasuna eta partaidetza izango dira beraz, zuzendaritza honek oinarri izango dituen printzipio nagusiak.

Instalakuntza aldetik ikastetxe txikia da eta oraindik konpartitua (LH-ko San Juan Ikastetxekoekin). Beraiek behe eta lehen solairuan dihardute eta guk bigarren solairuan, bertan daude ikasleen ikasgelak, informatika gela, laborategia, bikoizketa gela bat, aniztasunaren trataeraren beharretarako gela bat, sukaldea, mintegiak, irakasle gela eta zuzendaritza; nahiz eta idazkaritza, atezainaren gela eta beste zenbait gela espezifiko (Teknologia gela, Plastika gela, Musika gela, Irrati gela eta Bikoizketa gelatxo bat) lehen solairuan egon. Liburutegi baten falta sumatzen da. 2018an 4 gela berri erantsiko zaizkio ikastetxeari. Patioari dagokionez, berriz, Udalak estaltzeko eskaria luzatu dio Foru Aldundiari.

Gorputz Heziketan herriko politikoldegia erabiltzen da, baina bai hau eta bai patioa eta jantokia ere LHkoekin adostu eta konpartitu behar ditugu. Horrez gain, atsedenaldietan ikasleek ez dute leku egokirik euria eta hotzetik babesteko. Taldeko ikasle kopurua handitu egin da azken urteotan eta horrek gelen berrantolaketa bat eskatzen du.

Eskaintza akademiko aldetik, Aralar Institutuak DBHa eskaitzen du, D ereduan. Institutua Agenda 21eko, Normalkuntzako proiektuetan atxikita dago. Baita Hezkuntza Marko Hirueledunean ere orain arte. Eta, horren harira, eleaniztasunerantz bidea eta hizkuntz proiektua garatu dira. Gainera, Lan Kooperatiboan ikasteko lehenengo urratsak eman dira, eta laguntza beharra duten ikasleentzak BIDEFLAGUN (PROA) eta HSBP(PREE) programak daude. Datorren ikasturtean, berriz, Hezkidetzeta eta genero indarkeriaren prebentzioari heltzeko jarduketa-plana proiektuan sartuko gara. Bere helburuetako bat ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea da, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz. Bizikidetzeta programa ere indarrean dago. Jarduera osagarri bezala Bertsolaritza eskaintzen da eta Alegiako Intxurre futbol taldean parte hartzen dute bertako neska eta mutilek. Jangela eta garraio zerbitzuak daude.

IKASLE KOPURUA gelaka eta mailaka 2014_15 ikasturtean DBHn:

	MAILA	GELA	GUZTIRA
DBH	1	A- 18 B- 18 C- 18	54 IKASLE
	2	A- 22 B- 21	43 IKASLE
	3	A- 18 B- 18	36 IKASLE
	4	A- 20 B- 20	40 IKASLE
GUZTIRA		9 GELA	173 IKASLE

Jangela erabiltzen dutenak: 96 ikasle

Garraioa erabiltzen dutenak: ikasle

ORDUTEGI OROKORRA	Goizez	Arratsaldez
Astelehen/astearte/ostegun	8.30 -12.40	14.10 -16.00
Asteazken / ostiral	8.30-14.30 (jardunaldi jarraia)	

IKASTETXEKO PLANTILA 2014/15 ikasturtean, 26 irakaslek, 14 finkoak, hezkuntza bereziko bi, HIPI BAT, administrari bat, atezain bat, 3 jangelako zaintzailek eta 2 garbitzaileek osatzen dugu (LHkoekin konpartituak). LHkoekin konpartitzen ditugu sukaldariak.

Irakasleak.

Profesional egokiak dira, formatuak, eta konpetenteak. Inplikazioa eta motibazioa desberdina bada ere, adiskidetasuna eta giro atsegina nabarmentzen da.

Irakasleen arteko informazioa batzorde pedagogikoaren bidez mintegietara zabaltzen da; bilera hauek astero egiten direnez, ez dago inongo arazorik informazioa pasatzerakoan. Ikasleek ere ez dute inongo arazorik edozein momentuan (atsedenaldietan edo klaseak bukatzen direnean) irakasleengana hurbiltzeko, ikastetxea txikia baita, eta erraz aurkitzeko modukoa baitago.

Irakasleak ez direnak:

Ikastetxeko administrari laguntzailea: nahiz eta bere lehen urtea izan lan horretan profesional ona da, efektiboa eta efizientea da. Gainera, lehen zuen atezain karguko eginkizun guztiak erakusteko prest dago etorri berriari..

Atezaina: Ikasturte honetan etorri da aurrekoa ordezkatzera, baina pertsona konpetentea da eta bere lana oso ongi betetzen du

EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Ikastetxearen diagnostikoa egiteko galdeketa egin dugu irakasle eta zenbait ikasle eta gurasoen artean beraien pertzepzioaren berri izateko eta

Hezkuntza sailak antolatzen dituen diagnosi frogak aztertu ditugu arlo akademikoan.

Aipatzeko indar-guneen artean **ikasleekiko gertutasuna**, ikastetxeak ikasleei eskaintzen dien Orientazio Programa Pertsonalizatua, horretarako LHko ikastetxeetakoekin eta Orixe institutuarekin egiten diren koordinazio bilerak, orientazio hitzaldia, ate irekien jarduera, beste ikastetxetara egiten diren irteerak ibilbide akademikoa zehazteko ... Ikasle-irakasle harremana ere gertukoa eta erraza da ikastetxe txikia den aldetik. Irakasleen artean **koordinatzeko garaian irakasleen** arteko **gertutasuna** lagungarria da.

Hobetzeko eremuen artean, espazio falta dela eta, dauden **espazioen kudeaketa** puntu garrantzitsu bat da; baita ere **IKTen hobekuntza** eta **lan banaketa ekitatiboa** bermatzea.

Guztia aztertu ondoren, argi ikusten dugu zuzendaritza talde berriaren zereginaren ehuneko handi bat **mantentze lanari** dedikatu egin beharko diola, argi izanik, **kudeaketa sistema** bitartekoa dela, **protagonista** gisa **ikaslea** izango duena.

Hau dena kontutan harturik finkatu ditugu ondorengo urtetako helburuak.

⚡ **Hezkuntza beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.**

Azken lau ikasturteetako emaitzak aztertu ondoren (12-13, 13-14, 14-15 eta 15-16) esan dezakegu:

- **Titulazioak:** %94,2ak DBHko titulua lortzen duela. (erkidegoko beste ikastetxeetan baino gehiago. Erkidegoan % 85,4 da).

.- **Eskolaratze uztea** %4aren inguruan daukagula eta kasu gehienetan ikasle horiek beraien ikasketak PCPlanetan (gaur egun Oinarrizko Lanbide Heziketa) jarraitzen dituztela.

.- Bataz beste, **errepikapenak** %5etik beherakoak dira.

Bestalde ikastetxeko arlo bakoitzeko emaitzak beste ikastetxeetakoekin konparatuz (dela ikastetxe publikoetako emaitzekin, dela erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpekoen emaitzen baturarekin) arlo gehienetan parean edo gainetik gaude. Gaztelanian, berriz, parean.

Beste alde batetik, maila batetik bestera dena gaindituta pasatzen diren ikasle kopurua erkidegoan %91,25 den bitartean gurean %97,25 da.

Horrezaz gain, hainbat ikasturtetan egin diren ebaluazio-diagnostikoen emaitzak aztertuz, arlo guztietan mantendu egin dira emaitzak; Gaztelanian, eta Euskaran, berriz, okerragoak dira. Etorकिन eragina nabaritu da.

ISEK indizean oinarrituz emaitzak ondorengo hauek dira:

“dagokion konpetentzia lortutako emaitza eta bere ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitzaren arteko erlazioa”

Euskara. Erdi maila altuan kokatzen da ikastetxea

Gaztelania. Erdi maila baxuan kokatzen da ikastetxea.

Matematika. Erdi maila altuan.

Ingelesa. Erdi mailaren erdian.

Zientzia/Teknologia. Erdi mailaren erdian.

Azkenik, PISAko emaitzei dagokienez, azkeneko urteetan gure ikastetxean frogarik pasa ez dutenez, erreferentziarik ez daukagu.

Ikastetxean garatzen ari garen HBSP, Ezberdintze curricularra, Bidelagun eta LEKTORA bezalako proiektuek eta Bizikidetzeta eta Tutoretza

planek duten eraginez, orokorrean ikastetxeko emaitzek hobera egingo dutela espero dugu eta aipatzekoa da baita irakasle taldeak eginiko esfortzua metodologia berrietako prestakuntzan eta barne koordinazioan.

✚ Ikastetxearen hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.

Ikastetxean garrantzi handia ematen diogu ikastaldeak osatzeari. Gure helburua talde heterogeneo-orekatuak lortzea da. Horretarako ikasturte bukaeran ahalegin sendoa egiten da urtero, irizpide zentzuzkoak erabiliz, nahiz eta gero ikasle horiek ikasturtean zehar daukaten garapenak oreka hori baten baino gehiagotan kolokan jartzen duen. (baina hori aldeztatik aurreikusitako ezina da).

Tutoretza banaketarako erabili ohi diren irizpideak egokiak eta ezinbestekoak dira; esaterako, tutore lanetan arituko direnen artean beti maila guztietan gutxienez irakasle bat finkoa izatea eta astero orientatzailearekin tutoretza planaren jarraipen bilerak egitea. Horretaz gain tutoretza indartzeko gure tutore guztiek beste irakasle baten laguntza dute (tutore laguntzailea) eta astero ordu bat bakarkako tutoretza egiteko.

Metodologiari dagokionean, arlo guztietan ahalegina egiten ari gara IKTak erabiltzeko (classroom, ordenagailuak erabiltzeko...). Dena dela oraindik aldaketak gutxi dira eta ikaslea bere ikasketaren subjektu aktiboa izatea lortu behar dugu. Horretarako irakasleok gutxiago hitz egin eta ikasleari informazioa bilatzen, informazioa ulertzen, informazioa aztertzen eta informazio hori bizitzak planteatuko dizkion arazoei aurre egiteko erabiltzen irakatsi behar diogu. Ikasle

kompetenteak lortu behar ditugu eta horretarako ezinbestekoa da klaseak, proiektuetan oinarrituz, praktikoagoak egitea. Horretarako momentu honetan ezinbestekoa da formakuntza eta sare lana beste ikastetxeekin egitea irakasleон kompetentzia maila handitzeko.

Bestalde, ikastetxean lanerako dugun antolaketa nagusia (Batzorde pedagogikoan eta mintegietan oinarritzen dena) ondo iruditzen zaigu.

Klasetik kanpo arazorik handiena *euskararen erabileraren atzerakadan* ikusten da. Ikasleek euskara gutxiago erabiltzen dute, eta horrek badu eragina ikasketetan ere (ulermenean, adierazpenean,...). Egoera honek lotura zuzena du gure ikastetxearen inguruko herrietara etorkinak etortzearekin.

Bizikidetza arloan arautegi argia eta onartua izatea, oso garrantzitsua dela uste dugu. Ikastetxeko komunitate guztiak honetaz iritzi bateratua izateak asko laguntzen du arazoei aurre egiteko orduan.

2. Printzipioak, baloreak eta nortasun-ezaugarriak

ARALAR BHI Institutuaren eginkizuna ondokoa da:

Ikaslearen nortasuna ikuspegi guztietatik garatzea; horretarako, prestakuntza akademiko bikaina eta giza baloreetan oinarritutako formazio sendoa emanaz, bera ere gizarteko kide eta eragile bete-beteko bihurtuz. Besteak beste, elkarbizitza, hezkidetza, gizatasuna, parte hartzea, lanerako eta ikasteko ohitura egokiak eta eleaniztasuna bultzatuko ditu gizartearen gaurko eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko. Beraz, gure ikastetxeko nortasun ezaugarriak ondorengoak dira:

IKASTETXEKO NORTASUN EZAUGARRIAK (Nolako eskola nahi dugu)

- Euskalduna
- Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazio bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duena.
- Gure gizartean eta ingurunean errotua eta besteei irekia.
- Partehartzailea eta irekia. Gizartearen eta eskola komunitateko partaide ezberdinen ekarpenak kontuan hartzen dituena.
- Guztien ideiak, izaerak eta ezberdintasun mota guztiak errespetatzen dituena eta era berean, aniztasuna ezaugarri aberasgarritzat jotzen duena.
- Hezkidetza. Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duena.

- Bakoitzaren ahalmen potentzialak garatzeko ahaleginak egiten dituen eta pertsonak bere osotasunean hezten saiatzen dena.
- Bizikidetzaren hobetzeko bideak jorratzen dituen. Horretarako, bakea eta giza eskubideak bultzatu eta oinarrizko giza baloreak landuz: errespetua, berdintasuna eta elkartasuna.
- Ikasleengan izpiritu kritikoa eta ardura bultzatuko dituen eta halaber, lana eta ahaleginaren garrantzia azpimarratuko duena.
- Ongi hornitua, gaurkotua eta gure lana ahalik eta hobekien egiteko baldintza egokienak bilatzen dituen.
- Ingurumena ezagutu eta babesteko jokabideak bultzatuko dituen.
- Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beraien oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko.

ESKOLA BEZALA DITUGUN OINARRIZKO HELBURUAK, HAU DA ZER NOLAKO IKASLEAK HEZI NAHI DITUGUN:

- Zoriontsuak, alaiak, positiboak eta bere ekintzen erantzule arduratsuak.
- Euskalduntasunetik kultur eleaniztasuna errespetatuko duten ikasleak.
- Kultura, ideia eta ezberdintasun oro errespetatzen dituztenak.
- Gure kultur ondarea ezagutu eta baloratuko dutenak, aniztasunetik aberastuz.

- Norbere burua ezagutu, onartu eta maitatzen dutenak. Bere gaitasun eta mugen jakitun izanda ere, bere burua hobetzeko ahalegina egiten dutenak eta oztopoen aurrean aurrera egiten dakitenak.
- Sortzaileak autonomoak eta dinamikoak.
- Kritikoak eta bere ezadostasunak behar bezala adierazten dakitenak.
- Langileak eta lan ohitura egokiak dituztenak.
- Jakin mina dutenak (norbera bere gustuak eta interesak ezagutzen lagundu eta interes berriak sortu).
- Elkarrekin (taldean, gizartean...) bizi eta elkarlanean ongi moldatzen dakitenak.
- Pertsonak gauza guztien gainetik baloratu eta bazterketa soziala arbuiatzen dutenak.
- Informazioa bildu, antolatu eta era kritikoan erabiltzen dakitenak.
- Etorkizunean aurkituko dituen eginbeharrei (lana, ikasketak...) aurre egiteko gai izango direnak.
- Eleanitzak.
- Ingurunea ezagutu eta zaintzen dakitenak.
- Osasuntsuak eta osasuna zaintzen dutenak
- Hezkidetza. Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero indarkeriaren aurkako jarrera izango dutenak.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Bailarako eskola txikietako ikasleak jasotzen dituen institutu publiko eta euskalduna izanik, gure helburua heziketa osoa eskaintzea da. Hemendik irtetea, ikasle autonomo, kritiko eta konprometituak sustatuz, bertako gizartean nahiz mundu zabalean parte hartzeko gai izan daitezten.

Ikastetxea osatzen duten partaideen arteko harremanetan, emaitza akademikoetan eta etengabeko hobekuntzan eredu izan nahi duen ikastetxea da.

3.1. Helburuak

1 helburuaren formulazioa

► "Ikasten ikasteko" gaitasunari begira adostutako plangintzari jarraipena ematea, ikasle bakoitzaren izaera kontutan hartuta, beronen etorkizuna eraikitzen lagunduko dioen heziketa ona emanez.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

- Bakoitzaren ahalmen potentzialak garatzeko ahaleginak egiten dituen eta pertsonak bere osotasunean hezten saiatzen dena.
- Ikasleengan izpiritu kritikoa eta ardura bultzatuko dituen eta halaber, lana eta ahaleginaren garrantzia azpimarratuko duena.
- Euskalduna.
- *Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazio bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duena.*
- *Mundua irekiko diena.*

2 helburuaren formulazioa

► Ikastetxeko dokumentazioaren egokitze eta eguneratze lanak burutzea, Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea eta elkarlana bultzatuz.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

- Gure gizartean eta ingurunean errotua eta besteei irekia.
- Parte hartzailea eta irekia. Gizartearen eta eskola komunitateko partaide ezberdinen ekarpenak kontuan hartzen dituen

3 helburuaren formulazioa

► Teknologia berrien ezarpenarekin jarraitzea, eta geletako jardueretan erabilera sustatzea, langileen formazioa eta konpromisoa ziurtatuz.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

- *Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beraien oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko.*

4 helburuaren formulazioa

- ▶ **Ikastetxeko azpiegituretan eta baliabidetan dauden beharrianak identifikatzea gure hezkuntza-proiektua kalitatez garatzeko eta hautemandako beharrianak kudeatzea, lanerako ziurtasun baldintzak hobetuz**

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

- Ongi hornitua, gaurkotua eta gure lana ahalik eta hobekien egiteko baldintza egokienak bilatzen dituena.

5 helburuaren formulazioa

- ▶ **Gure erakundearen funtzionamendua hobetzea, lanak modu koherentean banatzen direla ziurtatuz, lansaietan hartutako erabakiak eraginkorrek direla bermatuz eta denbora hobeto kudeatuz eta aldi berean ikastetxeko kideen arteko Elkarbizitza kudeaketa hobetu, guzti horretarako etengabeko hobekuntza sistemak ezarriz.**

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

- Guztien ideiak, izaerak eta ezberdintasun mota guztiak errespetatzen dituena eta era berean, aniztasuna ezaugarri aberasgarritzat jotzen duena.
- *Hezkidetza. Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duena.*
- Bizikidetza hobetzeko bideak jorratzen dituena. Horretarako, bakea eta giza eskubideak bultzatu eta oinarrizko giza baloreak landuz: errespetua, berdintasuna eta elkartasuna.
- Ingurumena ezagutu eta babesteko jokabideak bultzatuko dituena.

3.2. Lehentasunak

- 1.- DBH-ko etapa LOMCE legearen arabera antolatu.
- 2.- Irakaskuntz/ikaskuntza metodologian informatika eguneroko balibide bezala erabili. IKT heldutasun ziurtagiriak lortu.
- 3.- Hezkidetza eta hizkuntz proiektuak garatu eta aurrera eraman.
- 4.- Hezkuntza proiektua beharren arabera egokitzen jarraitu.

4.1. Curriculumaren esparrua

⚡ Metodologia-aukerak

Irizpide Metodologikoak

Inklusibitate eta ekitate printzipioen aplikazioa bermatzeko, ikasleen eskola arrakasta eta konpetentzia guztien garapena bermatuko dituzten ikas-irakasteko metodologiaren garapena sustatuko ditugu lehentasunez.

Aniztasun horren barruan, konpetentziaren araberako ikuspegiaren alderdi bereizgarri hauek nabarmentzen ditugu:

- 1.- Ekintza konpetenteak egiteko, modu integratuan erabili behar dira eskura dauden baliabideak, arazo-egoerak ebazteko.
- 2.- Eskolaren asmo nagusia ez da informazioak eta jakintzak transmititzea, eta bai oinarrizko konpetentzien garapena eragitea.
- 3.- Baliabideak dira adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak, baina ezinbestekoak dira arazo-egoerak konpontzeko.
- 4.- Oinarrizko konpetentziak garatu ahal izateko, egoera errealak hartu behar dira aintzat, eta benetako jarduerak proposatu; hala, eguneroko bizitzako arazo nagusiekin lotu behar da ezagutza.
- 5.- Oinarrizko konpetentzien ikaskuntza esanguratsua izango baldin bada, ikasleak gogoz parte hartu behar du ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan.
- 6.- Konpetentziak lantzeko prozesu horretan, ikaskuntza tutorizatzea da irakaslearen egitekoa; hau da, ikasteko prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, estimulatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea.

Irizpide Metodologiko Orokorrak

Ez dugu uniformetasun metodologikoa bilatzen. Aniztasun metodologikoa justifikatzeko arrazoiak badira: ikasleen estilo kognitiboa, ikasi behar den curriculumaren berariazko ezaugarriak eta irakaslearen estilo berezia. Beraz, metodoen aniztasuna egokia dela uste dugu, ikaskuntzarako helburuek eta edukiek, askotan, irakasteko modu desberdinen konbinazioa beharrezkoa baitute eta, bestalde, ikasleek ikasteko dituzten estilo desberdinek erantzun desberdinak eskatzen baitituzte, uneen, arloen, edukien eta abarren arabera bereizitako estrategia metodologikoen bitartez.

Hala ere, irizpide metodologiko orokorrak erabakitzea komeni dela uste dugu, gure prozesu didaktikoan parte-hartze desberdinen koherentzia eta koordinazioa bilatu ahal izateko.

Ikaskuntza prozesu jarraitua dela ulertzen dugu eta ikaslea izango da bere ikaskuntzaren protagonista. Ez dizkiogu gauzak eginda eman behar, baizik eta ikertu, erlazionatu, ondorioak atera etab. Egin beharko du, bere ikaskuntza berezia eraikitzen joateko.

Ikasle bakoitzari bakarkako arreta eskaintzeko oinarria hartuko dugu abiapuntutzat, horretarako ikaslearen aurrerakuntzaren eta beharren jarraipen indibidualizatua eginez.

Aplikaturako metodologia aktiboa izango da, ikasleak hartzaile pasibo hutsa izan ez daitezen eta behatu, hausnartu, egin, parte hartu, ikertu eta eraikitzeko gai izan daitezen, ahal den heinean, ikertzeko eta aurkitzeko metodologia bat garatzeko ardura hartuz eta azalpena gaietarako edo beharrezkoa den unetarako soilik utziz.

Ikasten ari direnaren ulermena sustatuko dugu ahal beste, ulertzen den neurrian ikaskuntza esanguratsuak egiten baitira; horrek ez du esan nahi ulermenean oinarritutako memoria alde batera utzi behar denik, hori ere oinarritzkoa eta beharrezkoa baita ikaskuntzarako.

Helbururik gabeko ekintzak ez egiteko ahalegin berezia egingo dugu, ikasleek jarduerak pentsatu gabe eta mekanikoki egin ez ditzaten. Ildo beretik, jardueren bitartez egiten ari garen lanaren analisia eta ondorioen lanketa sustatuko dugu.

Irakasle guztiok DBHren hasieran, gutxienez, hasierako ebaluazioa egiteko konpromisoa hartuko dugu, irakaskuntza ikasle bakoitzaren eta taldearen ezaugarrietara egokitzeko.

Egoki eta komenigarria denean hasierako ebaluazio desberdinak egingo dira ikaskuntza unitate bakoitzaren hasieran edo kontzeptu berriak sartzen direnean.

Akatsa ikaskuntza iturri gisa erabiliko da, ez bakarrik zigortzeko arrazoi moduan, eta akatsa ikusiz, aztertuz eta zuzenduz hobe daitekeela izango dugu kontuan.

Ikasleen talde lana ikaskuntzarako metodo garrantzitsu moduan erabiliko dugu, parekoen arteko elkarreagina ezagutzak eskuratzeko eta gaitasunak garatzeko baliabide boteretsua dela ohartzen baikara.

Edukiei proiektio praktikoa emango diegu, ikaskuntzen funtzionaltasuna bi zentzutan bermatzeko: beranduago beste ezagutza batzuk eskuratzeko gaitasunak garatzeko eta horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko.

Irakasle taldearen jardueren helburuetako bat ikasleen auto-estimua eta oreka pertsonala eta afektiboa sustatzea izango da, alderdi positiboak sendotuz. Horregatik, taldean norbait marjintzen, banatzen edo barregarri uzten duten egoerak saihestuko ditugu eta, oro har, diskriminaziozko edozein

jokabide baztertuko dugu, neska/mutilen artean berdintasunean oinarritutako lan-giroa sustatuz.

IKT erabilera garatzen ditugun pedagogia berrikuntza proiektuen garapenaren esparruan bultzatuko dugu ikasgelan.

Konpetentzia Digitalaren garapena IKT-en bidez lortutako informazioaren heltze kritiko eta erreflexiboari doan nahitaez.

IKT erabilera arduratsua, demokratikoa eta laguntzailea bultzatuko dugu ikasleengan.

↓ Ebaluazioa

ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

PRINTZIPIO OROKORRAK

Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izateko duten eskubidea bermatze aldera, ARALAR BHIko gobernu organoek, koordinazio organoek eta irakasleek titulu honetan ezarri den berme-sistema aukeratuko dute. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken kalifikazio aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

Nolako ebaluazioa izango da: ebaluazioa konpetentzien arabera izango da. Zer baliabide eta konpetentzia lortu dituzten jakiteko bidean, ikasleak ebaluatzearen eginkizuna da haien ikaste-prozesuari eta horren emaitzei buruzkoa informazioa azalaraztea.

Hasierako ebaluazioa.

Hasierako ebaluazioaren helburu nagusia ikaslea zer egoeratan dagoen jakitea da irakasteko eta ikasteko prozesua abiatu aurretik, horrela hezkuntzako esku-hartzea ahalik eta egokien diseinatu ahal izateko.

DBHren **hasieran** irakasle-taldeak hasierako ebaluazioa egingo du, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren abiapuntua zehaztu ahal izateko.

Hori lortzeko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeek bidalitako informazioa-Ebaluazio Indibidualizaturako Txostena kontuan izango da.

Txostenaz gain Orientazio Mintegikoek aurreko tutoreekin elkarrizketak izango dituzte.

Etorkinak kurtsoa hasi ondoren eskolatzen direnean, beraien hasierako ebaluazioa ere arreta handiz gauzatuko da. Orientatzaileak dagozkien frogak pasatuko dizkiete.

Ikasturtean zeharreko ebaluazioa.

Prozesuaren ebaluazioaren edo ebaluazio hezigarriaren helburua da ikaslearen ikasteko prozesu osoak duen garapenari eta bilakaerari buruzko informazioa eskuratzea, edukiak eskuratu dituen eta haiek egoera jakinetan erabiltzen dakien jakiteko (konpetentziak), oztopoak gainditzen laguntzeko eta autorregulazioko prozesuak indartzeko.

Ikasleen ebaluazioa etengabea izango da eta jarduera, berriz, sistematikoa eta iraunkorra, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan integratua egongo dena.

Ebaluaziorako jarduera desberdinak egingo dira sekuentzia didaktikoetan.

Ikasleei beren egoeraren berri emango zaie modu informalean ebaluazio-garaiaren une desberdinetan.

Ikasleen ebaluazioa integratzailea izango da, arlo eta ikasgai guztietan etaparako ezarritako konpetentzia orokorrak kontuan izanik eta, beraz:

Arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideetan konpetentzia orokor horiek kontuan izango dira.

Ebaluazio-bilkuretan erreferentzia orokor hori gogoratuko da.

Ikasleen ebaluazioa indibidualizatua izango da eta ikasle bakoitzarentzat prestakuntza-funtzioa izango du. Ikasleei bere indarguneak zein diren eta ahulguneak nola hobetu adieraziko zaie.

Bizikidetzako arduraduna ebaluazioa bukatzen denean gela bakoitzeko ordezkariarekin eta ordezkari albokoarekin emaitzak aztertzeke bilduko da.

Amaierako ebaluazioa:

Kalifikazio bat jartzen zaio ikasleari; hala estandarizatutako eta arauz ezarritako eskalaren arabera kodetuta adierazten da kalifikazio hori. Amaierako ebaluaziora erreparatuta hartzen dira zenbait erabaki administratibo, hala nola, mailak edo etapak gainditzearen; promozioaren eta titulazioaren gainekoak.

1.- Publikotasuna

1.1.- Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek zein legezko haien ordezkariak ICP (programazio laburrak) eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkoren eskura egongo den ICPan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarritzko konpetentziak.

1.2.- Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du departamentu didaktikoek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio prozedura nahiz irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.

1.3.- Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela. Programazioak zuzendaritzan egongo dira eskuragarri.

2.- Ebaluazio-bilkurak

Ebaluazio-bilkurak irakasle-taldearen bilerak dira eta taldearen irakasleak/tutoreak koordinatzen ditu eta, hala dagokionean, orientatzailearen laguntza izaten du. Eztabaida kolegiatua egin ondoren, bilkura-egunera arte egindako ebaluazio-jardueren emaitzak biltzen dituzte dokumentuetan.

Urte akademikoan zehar honako hauek egingo ditugu:

Ebaluazioko ohiko hiru bilkura, ikasturteko hiruhileko bakoitzaren amaieran.

Ohiko bilkurez gain, urriko lehenengo astean, Udako Indartze Neurriak baloratzeko, hasierako ebaluazioko bilkura bat egingo da.

Ebaluazio-bilkuren artean, berriz, aurrebaluazioa egingo da; ikasleen aurrerapenak aztertzeko, batez ere behar edo premia bereziren bat duten ikasleenak, edo taldean sor daitezkeen bestelako arazoak aztertzeko.

Ebaluazio-bilkuretan emaitza akademiko globalak aztertuko dira, egoera ezagutzeko eta alderdi hauek sakontzeko edo hobetzeko neurriak proposatzeko.

Ebaluazio-bilkuretan taldearen egoera eta arazoak aztertuko dira eta, hala dagokienez, horiek konpontzeko neurriak hartuko dira.

Ezohiko azterketak egin ondoren azken ebaluazio-bilkura egingo da. Bilera horretan, guztien artean eztabaidatu ondoren, ondoko erabaki hauek hartuko dira:

Derrigorrezko arloetan eta aukerakoetan lortutako kalifikazioak erabakiko dira.

Ikaslea hurrengo mailara igaroko den ala hurrengo ikasturtean ziklo edo maila berean geratuko den erabakiko da.

Bigarren Irakaskuntzako Graduatu titulua emateko edo hurrengo ikasturte akademikoan maila berean jarraitzeko proposamenak erabakiko dira.

3.- Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

3.1.- Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatu dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuratuko dutela.

3.2.- Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.

3.3.- Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin lehenengo eta hirugarren ebaluaketetan tutoreen eta ikasle bakoitzaren gurasoen arteko bilera egingo dela. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.

3.4.- Ikasketaburuak ziurtatu behar du, era berean, DBHko tutoreak beren taldeko gurasoekin ikasturtean hasieran bilera bat egingo dutela. Bilera horretan, urteko helburuak, ordutegiak, gai bakoitzeko irakasleak, ikastetxeko arau garrantzitsuak... jakitera emango zaizkie.

Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari ICPan ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez (hiru ebaluazio-saio), ebaluazio -bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete (ikastetxeko buletinez). Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.

3.5.- Modu berean, ikasturteko azken ebaluazio bileretan ikasleak kurtsoz pasa ala ez erabakiko da. Indartze neurriak zeini jarri behar zaizkion ere zehaztuko da.

3.6.- Ebaluazio prozesua. Legeak agintzen duenaren arabera egingo da ebaluazioa. Kontuan hartuko dira:

Graduatua lortzeko irizpideak ARALAR BHIin

1.- Arloarekiko ikasleak gogoz parte hartzea ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzea..

2.- *Landutako jardueren (etxeko lanak, proiektuak, liburuak...) ekoizpenak eskatutako epean aurkeztea*

3.- Jarduera desberdinetan (aurkezpenak, proiektuak, liburuak, azterketak, testak...) ikaslea ahalegintzea eta ikasi duenaren zantzua izatea.

2017-12-13ko OOGren bileran onartuak

3.7.- Heziketa bereziko ikasleei beraien **CNE** arabera (ebaluazioko irizpideen arabera) ebaluatzen zaie. Ikasle hauen ebaluaketa Heziketa Bereziko irakasleek egiten dute.

Inikako buletinaz gain ebaluazio guztietan norbanako txostena ere emateen zaie.

Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak ebaluatzeko neurri hauek hartuko ditugu:

Errazago izateko berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak ebaluatzea (azterketak egitea, kontrolak egitea, etab.), ikastetxeek neurriak hartu behar dituzte: denbora gehiago ematea azterketak eta kontrolak egiteko; testuaren formatua ikasleek erabiltzeko modukoa izatea, haien beharrear araberrakoa; baliabide teknikoak erabiltzea beharrezkoa bada; hasieran edo/eta bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; aukera-berdintasuna bermatzeko neurriak hartzea, ikasleek horretarako eskubidea baitute; etab.

4.- Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

4.1.- Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. DBHn eta aurretik eskaera egin ondoren, behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

4.2.- Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna. Prozedura hau OOGak onartuko du eta ARALAR BHIko Bizikidetza Arauen barne egongo da.

4.3.- Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

4.4.- Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea. Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta 48 igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertze eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, departamentu didaktikoari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, curriculum ofizialaz eta ICPEz gain, departamentu didaktikoen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla kontuan hartuko da.

4.5.- Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete 48 orduko epean, kalifikazioa jakin dutenetik zenbatzen hasita. Dagozkion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikulua azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.

4.6.- Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, departamentu didaktikoaren esku-hartzea eska dezakete 48 orduko epean. Departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz, erreklamazioa egin den modu berean, erantzungo dio.

4.7.- Azken kalifikazioei buruzko erreklamazio-prozedura:

4.7.1.- Ohiko eta ezohiko deialdien azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa ikasketaburuari zuzendutako idatzi baten bidez aurkeztu beharko da idazkaritzan 48 orduko epean, kalifikazio banaketa saioa egin duen unetik zenbatzen hasita.

4.7.2.- Irakasleak, ikasketaburuak ezarritako ordutegian, berrikusketa saioa bat izango du. Saio honetan, irakasleak ikasleari, banan-banan, irakaslearen aburuz merezi duen kalifikazioa esan eta gero, ikaslearen onespeneko edo ezadostasuneko adierazpenak jasoko ditu eta aurretiaz jarritako kalifikazioa baieztatuko edo berrikusiko du bere iritzia araberaren arabera.

4.7.3.- Ikaslea irakasleak ebatzitakoarekin ez badago ados, 48 orduko epea izango du erreklamazioa egiteko, irakaslearekin berrikusketa saioa egin duen unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa, zilegi litzatekeen kalifikazioa eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak. Irakasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

4.7.4.- Ikasketaburuak dagokion departamentu didaktikoari aurkeztuko dio erreklamazioa. Departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Ez ohikoetan programazio laburretan jarritako gaitasun minimoak lortu dituen edo ez erabakiko da.

4.7.5.- Departamentu didaktikoak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

4.7.6.- Departamentu didaktikoak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio departamentu didaktikoaren erabakia.

4.7.7.- Irakaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

4.7.8.- Ikastetxe kanpoko eskaeren aurreko erreklamazioak:

Barneko erreklamazio prozesua bukatu ondoren eta ikastetxean deialdi arrunt eta ez ohiko deialdiaren kontrako erreklamazioak erabakirik, ikasleek, gurasoek edo legezko ordezkariak eta irakasleek, desadostasunean egotekotan, 48 orduko epean erreklamazioa aurkeztu dezakete ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean. Ondoren, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara eramango da bere ebazpenerako.

4.7.9.- Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea:

Eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean. Ikasleen deialdi arrunt eta ez ohiko deialdien azken probak, dagozkien departamentuan gordeko dira urtebetean.

4.7.10.- Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere. Guztientzat ebaluazio irizpide berdinak erabili beharko dira.

4.7.11.- Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

5.- Promozioa eta Titulazioa eskuratzea (2016-17 ikasturtea)

LOMCEren araudipekoak dira:

DBH		
Negatiboki ebaluatutako ikasgaiak	Zein ikasgai	Erabakia
2	ez badira L/E+Mate	Aurrera
2	L+Mate edo E+Mate	Irakasleen erabakia
3	L/E/M tik bat gehienez	Irakasleen erabakia
3	L/E/M tik bi badira	errepikatu

ERANSKINAK

- 1.- BULETINA ETA OHARRAK
- 2.- ERREKLAMAZIOAK EGITEKO ORRIAK
- 3.- NORBANAKAKO LAN PLANA ETA INDARTZE NEURRIAK
- 4.- EBALUAZIOA ARAUTZEN DUTEN LEGEAK

2008ko uztailaren 7ko AGINDUA (144 ZK.). Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duena.

2008ko abenduaren 16ko AGINDUA (240 ZK.). Ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

2010eko uztailaren 26koa (171 ZK.). Ebaluazio prozesua arautzen duena.

2014ko abenduaren 26ko 1105/2014 errege dekretua.

LOMCE legea. Curriculum dekretuak 236/2015 dekretua.

2016ko uztailaren 29ko 310/2016 errege dekretua.

Bigarren Hezkuntzako Institutuetan 2015-2016 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko hezkuntza sailburuordearen ebazpeneko 1.5 atala: ikasleen ebaluaziori buruzko gaiak.

↳ Hezkuntza-eskaintza

ARALAR BHI bigarren hezkuntzako institutuak honako eskaintza akademikoa dauka: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).

Ikasle guztientzako neurri orokor komunak hartzeaz gain, institutuak guztiek bere ahalmen potentziala maximoan garatu ahal dezaten, ikasle batzuk dituzten heziketa behar bereziaz arduratzera bideratutako neurri espezifikoak ere garatuko ditu. Horretarako, ikasle guztien heziketa beharretarako heziketa erantzuna emango duen Aniztasunerako Plana izango du.

Plan horrek aukerakotasun eskaintzari, ikasleen taldekatzei eta heziketa errefortzuei dagokionez, ikastetxearen irizpideak ezarriko ditu eta ondorengo proiektuak abian jarriko ditu: PT eta laguntza gelak, Bidelagun programa, HSBP (PREE) eta Hizkuntzak Indartzeko Programa (HIPI).

Ikasleak taldekatzeko irizpideak:

Talde bakoitzeko ikasle kopurua: maximoa 25ekoa izanik, batez besteko kopurua 20koa da. Egokia banakako jarraipena ahalbidetzen duelako.

Generoa: beti neske-mutilen kopurua berdina izan dadin ahalegintzen gara.

Hizkuntzen trataera: ikasleen jatorria kontuan hartuta egoera hauek ematen dira:

- Ama hizkuntza euskara dutenak
- Ama hizkuntza gaztelania dutenak
- Ama hizkuntza atzerriko hizkuntza bat dutenak

Hizkuntza Proiektuan zehaztu dugu trataera hori

Talde homogeenak/heterogeenak: talde heterogeenak bultzatuko ditu, hau da, talde bakoitzean erritmo, emaitza ezberdinetako ikasleak elkartuko ditu.

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak

Jarduera osagarriak antolatzeko irizpide orokorra hau da: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua indartzea eta curriculum osatzen laguntzea. Gainera, Derrigorrezko ekintzak dira eta ikasle guztiak joan behar dute.

Mintegi bakoitzak ikasturterako programaturikoak ongi mugatu beharko ditu.

Ikasturtean zehar banatu beharko dira eta ikasturte bukaeran ez pilatu.

Ikasturtearen hasieran gurasoen oniritzia jaso beharko dute.

Ikastorduetan

Egonaldiak

Arloarekin lotutako irteerak (naturara irteerak, museoak, erakusketak...)
Film emanaldiak
Literatura ekintzak (antzerkiak, idazleei buruzko azalpenak, ahozkoitasuna lantzea...)
Giza baloreen hausnarketa
 Drogomenpekotasuna
 Sexualitatea
 Segurtasuna
 Genero indarkeria
 Orientazioa
Ikastetxez kanpokoak. Borondatezkoak dira.
Kirol jarduerak

IKASGAIEN ESKAINTZA

ARALAR DBH-KO ESKAINTZA

ORDUAK ASTEAN	Ordutegia kurtsoaren arabera			
	1 maila	2 maila	3 maila	4 maila
Geografia eta historia	3	3	3	3
Gaztelera eta Literatura	4	4	3	3
Euskara eta Literatura	4	4	3	3
Atzerriko lehen hizkuntza	4	3	3	4
Matematika	4	4	3	4
Gorputz Hezkuntza	2	2	2	2
Erlijioa / Balio Etikoak	1	1	1	1
Musika	1	1	1	--
Fisika eta Kimika		3	3	3 ord ikasgai.1
Latina				
Teknologia	2	2	2	
Biologia eta geología	3		3	2 ord. ikasgai 1
Ekonomia	--	--	--	
Jarduera profesionalari aplikatutako zientziak	--	--	--	
Plastika, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza	1	1	1	2 orduko 2 ikasgai
Frantsesa				
Kultura zientifikoa				
Filosofia				
IKT (Informatika)				
Teknologia				
Tutoretza	1	1	1	1
Aukerakoak. Ikus mailaka eskaintzen direnak		1	1	--

Ikastetxeko antolaketa librea: **saio 1**, 2. mailan eta **saio 1**, 3. mailan

Aukerakoak (ikastetxeko antolaketa librea): Frantsesa, Artisautza, Asmakizuntailerra, Informatika, Aisia...

*** 2. MAILATIK AURRERA AUKERAKOEN ESKAINTZA HONELA EGINGO DA:**

DBH 2 - AUKERATU BEHARREKO GAIAK

DBH-ko 2. maila egingo duten ikasleek astean ordu BATEKO aukerako gai bat izango dute.

Institutuak beheko laukian azaltzen diren gaiak eskainiko ditu.

Nahiz eta oraindik Hezkuntza Sailak ikasgai hauek irakasteko zein baliabide emango dizkigun ez jakin, guztiz beharrezkoa zaigu ikasleen nahien berri izatea datorren ikasturteko planifikazioari ekiteko.

Horretarako ikasle on nahia jakiteko inkesta hau betetzea eskatzen zaizue. Inkesta hau datu-bilketa da: hemen ikasgai batzuk aukeratu izanak ez du ziurtatzen ikasleak hurrengo ikasturtean hauek ikasi ahal izango dituenik nahiz eta ahaleginduko garen.

Bete ezazue mesedez eta **tutoreari entregatu** maiatzaren **12rako**, garrantzitsua baita datorren ikasturteko antolamendurako.

Jarri **1 zenbakia** nahiago duzun gaien, **2 zenbakia** hurrengoari eta **3 ondorengoari** (**hiru gai markatu** behar dituzu).

IZENA:

FRANTSESA	
ARTISAUTZA	
ASMAKIZUN TAILERRA	
MINTZA TAILERRA	
INGELESKO TAILERRA	
INFORMATIKA	

X BATEZ	
AUKERATU ERLIJOA EDO BALIO ETIKOAK	
ERLIJOA	
BALIO ETIKOAK	

OHARRA: orri hau betetakoan zure tutoreari eman.

Gurasoen sinadura:

DBH 3 – AUKERATU BEHARREKO GAIAK

DBH-ko 3 maila egingo duten ikasleek astean ordu BATEKO aukerako gai bat izango dute.

Institutuak beheko laukian azaltzen diren gaiak eskainiko ditu.

Nahiz eta oraindik Hezkuntza Sailak ikasgai hauek irakasteko zein baliabide emango dizkigun ez jakin, guztiz beharrezkoa zaigu ikasleen nahien berri izatea datorren ikasturteko planifikazioari ekiteko.

Horretarako ikasleonek nahia jakiteko inkesta hau betetzea eskatzen zaizue.

Inkesta hau datu-bilketa da: hemen ikasgai batzuk aukeratu izanak ez du ziurtatzen ikasleak hurrengo ikasturtean hauek ikasi ahal izango dituenik nahiz eta ahaleginduko garen.

Bete ezazue mesedez eta **tutoreari entregatu** maiatzaren 12rako, garrantzitsua baita datorren ikasturteko antolamendurako.

Jarri **1 zenbakia** nahiago duzun gaiari, **2 zenbakia** hurrengoari eta **3 azkenekoari** (hiru gai markatu behar dituzu).

IZENA:

FRANTSESA II	
INFORMATIKA	
ARIKETA FISIKOA, AISIA ETA OSASUNA	
AHOZKOTASUN TAILERRA	
ENGLISH CONVERSATION	

X BATEZ	
AUKERATU ERLIJIOA EDO BALIO ETIKOAK	
ERLIJIOA	
BALIO ETIKOAK	

OHARRA: orri hau betetakoan zure tutoreari eman.

Gurasoen sinadura:

Aukerakoak 4. maila:

IZEN DEITURAK:.....

<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 70%; padding: 2px;">IBILBIDE AKADEMIKOA</td> <td style="width: 30%; text-align: center; padding: 2px;"><input type="checkbox"/></td> </tr> </table> <p>(Batxilergora bideratuta) Bi arlo hauetatik bat aukeratu (Astean 3 ordu bakoitzak):</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 50%; padding: 2px;">FISIKA KIMIKA</td> <td style="width: 50%; padding: 2px;">LATINA</td> </tr> </table> <p>Bi arlo hauetatik bat aukeratu (Astean 2 ordu bakoitzak):</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 50%; padding: 2px;">BIOLOGIA GEOLOGIA</td> <td style="width: 50%; padding: 2px;">EKONOMIA</td> </tr> </table>	IBILBIDE AKADEMIKOA	<input type="checkbox"/>	FISIKA KIMIKA	LATINA	BIOLOGIA GEOLOGIA	EKONOMIA							
IBILBIDE AKADEMIKOA	<input type="checkbox"/>												
FISIKA KIMIKA	LATINA												
BIOLOGIA GEOLOGIA	EKONOMIA												
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 60%; padding: 2px;">APLIKATUTAKO IBILBIDEA</td> <td style="width: 40%; text-align: center; padding: 2px;"><input type="checkbox"/></td> </tr> </table> <p>(Erdi mailako zikloetara bideratuta) Ibilbide honetan aukera hau bakarra da.</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 70%; padding: 2px;">TEKNOLOGIA</td> <td style="width: 30%; text-align: center; padding: 2px;">3 ordu</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">LAN JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK</td> <td style="text-align: center; padding: 2px;">2 ordu</td> </tr> </table>	APLIKATUTAKO IBILBIDEA	<input type="checkbox"/>	TEKNOLOGIA	3 ordu	LAN JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK	2 ordu							
APLIKATUTAKO IBILBIDEA	<input type="checkbox"/>												
TEKNOLOGIA	3 ordu												
LAN JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK	2 ordu												
<p>BI IBILBIDEETAN AUKERATU DAITEZKEENAK Sei arlo hauetatik hiru aukeratu (Astean 2 ordu bakoitzak) eta lehentasunaren arabera zenbakiak jarri (1 gogokoenari, 2 hurrengoari eta 3 badaezpadakoari)</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="width: 70%; padding: 2px;">TEKNOLOGIA</td><td style="width: 30%; text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> <tr><td style="padding: 2px;">KULTURA ZIENTIFIKOA</td><td style="text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> <tr><td style="padding: 2px;">PLASTIKA</td><td style="text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> <tr><td style="padding: 2px;">FILOSOFIA</td><td style="text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> <tr><td style="padding: 2px;">INFORMATIKA</td><td style="text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> <tr><td style="padding: 2px;">FRANTSESA</td><td style="text-align: center; padding: 2px;"></td></tr> </table> <p>Oharra: Goiko aukeretan TEKNOLOGIA aukeratu bada ezin da hemen berriro hartu.</p>		TEKNOLOGIA		KULTURA ZIENTIFIKOA		PLASTIKA		FILOSOFIA		INFORMATIKA		FRANTSESA	
TEKNOLOGIA													
KULTURA ZIENTIFIKOA													
PLASTIKA													
FILOSOFIA													
INFORMATIKA													
FRANTSESA													

⬇ Aniztasunari erantzuna

SARRERA

Gizartean eta eskoletan aniztasunari nola erantzun behar diogun zehazten du inklusio kontzeptuak. Eskola inklusiboaren xede nagusia da ikasle guztien gaitasunak eta ahalmenak ahalik eta gehien garatzea, proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeke gai izan daitezzen.

Aralar BHI institutua osatzen dugun Hezkuntza Komunitateko partaide guztiok eskola inklusiboaren printzipioekin bat egiten dugu eta "Eskolainklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoan 2012-2016" aipatzen diren eskola inklusiboaren baldintzekin ados gaude:

- Ikasleen aniztasuna aintzat hartzeko hezkuntza egitasmo bat izan behar du.
- Eraiki behar dugun eskola komunitateak abegikorra, laguntzailea eta bizigarria izan behar du, eta ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsi behar ditu, hori baita eskola arrakastaren oinarria.
- Pertsona bakoitzaren behar sozialei eta hezkuntza beharrei erantzun behar die.
- Oztopoak gainditzeko konpromisoa hartu behar dugu, ikasle guztiek hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikasi ahal dezaten, eta ahaleginak egin behar ditugu ikasleek aniztasunari erantzuteko dituzten oztopoak gaindi ditzaten.
- Ikasle guztiak bultzatu behar ditugu ikastera eta parte hartzera, batez ere, gizarte egoera ahuleko ikasleak, sexuagatik, erlijioagatik, kulturagatik edo etniagatik baztertuak izateko arriskua dutenak.
- Ikasleen aniztasuna balioetsi behar dugu eta pertsona guztiei lagundu behar diegu ikasten. Izan ere, aniztasuna ez da arazo bat; aitzitik, aberasgarria da.
- Ikasgela barruan laguntza antolatu eta jaso behar dugu, ikasle bakoitzaren eta guztien beharrei erantzuteko.

ARALAR INSTITUTUKO IKASLEEN ANIZTASUNAREN ERAGILEAK

Gure ikastetxeko ikasleek aniztasun handia dute gaitasunei, garapen ebolutiboaren uneei, afektibitateari eta harremanei dagozkien jarraibideei, itxaropenei etab. dagokionez. Aniztasun hori areagotu egiten da etapak aurrera egiten duen neurrian eta, praktikan, edukiak bereganatzeko maila desberdinak, ikaskuntzako estilo eta erritmo desberdinak, harremanetarako modu desberdinak, interes eta motibazio desberdinak etab. sortzen dira.

Gure ikastetxean, gure arreta merezi duten aniztasun mota garrantzitsuenak ondorengo elementu hauekin erlazionatutakoak dira:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinetatik etorritako ikasleak.
- Gaitasun eta motibazio desberdineko ikasleak.
- Ikasteko orduan era ezberdinak dituzten ikasleak.

- Ikasle etorkinak edo euskal hezkuntza sisteman sartu berri diren ikasleak, EAEaren hezkuntza koofizialen ezagutza urria dutenak.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. (HPB)

ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK

1. OHIKO NEURRI OROKORRAK

1.1. Programazio didaktikoari dagokionez:

- Programazioak taldearen ezaugarriak eta horien beharrak kontuan hartuz egingo dira.
- Oinarrizko konpetentziak kontutan hartuko ditugu ikasleek etaparen amaieran lortu beharreko ikaskuntza gisa eta hauek maila ezberdinetan lortu daitezkeela pentsatzen dugu.
- Helburuak eta edukiak sekuentziatuko dira.
- Etapako maila bakoitzaren eduki minimoak zehaztu eta sekuentziatuko dira, horrela ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak garatzen dira.
- Zailtasun maila ezberdineko ariketak programatuko dira.
- Ariketa osagarriak programatuko dira, sakontzekoak, gehitzekoak, birpasatzekoak, sintesikoak,
- Aukera metodologiko desberdinak erabiliko dira, ikasleen motibazioa, interesa, inplikazioa, e.a. pizten laguntzen dutenak.
- Denbora eta lekuen antolakuntza malgua erabiliko da, ikasleen erritmo eta zailtasunak kontutan hartzen dituenak.
- Ebaluatzeko tresna desberdinak aurreikusiko dira.
- Azterketak, minimoak erreferentzi gisa hartuta prestatuko dira. Premia bereziko ikasleak kontutan izango ditugu, denbora gehiago emanaz, frogak egokituz, e.a.
- Ikasleak era heterogeneoan taldekatzen badira ere, taldekatze era ezberdinak konbinatuko dira (bakarkako lanak, bikoteka, talde txikian, talde handian, ..)
- Baliabide eta material didaktiko anitzak eta zailtasuna maila ezberdinekoak erabiliko dira.

1.2. Taldeari eta ikasleei dagokienez:

- Talde berriak eta bikoizketak egiten direnean, taldeak heterogeneoak izango dira.
- Arlo batean ordubeteko errefortzuak daudenean, egokiago ikusten da taldea zatikatzea baino bi irakasle gelan izatea.
- Talde lanean lankidetzaz sustatuko da, taldekatze heterogeneo edo homogeneoak osatuz une bakoitzean lortu nahi dugunaren arabera.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak taldean toki bat izango dute eta ahal den neurrian gela barruan egongo dira heziketa bereziko irakaslearen laguntzarekin.
-

1.3. Tutoretzari dagokionez.

- Ikasleen aurrerapenen bakarkako jarraipena egingo da, batez ere zailtasunak dituzten ikasleena. Horretarako astero maila bakoitzeko tutoreek orientatzailearekin bilerak egingo dituzte eta ohiko ebaluaketa bileraz gain aurrebaluaketak egingo dira.
- Irakaskuntzako eta ikaskuntzako kontratuak egingo dira eta bertan beteko dituen alderdi curricularrak ezarriko dira, jokabideei buruzkoak, harremanei buruzkoak etab.
- Lehen mailaren hasieran ikasleei zuzendutako harrera programa egingo da.

1.4. Aukerakotasunari dagokionez

DBHrenizaera konprensiboa eta ikasle guztientzat curriculum berdina egiteko proposamena, currulumaren nolabaiteko aniztasun mailarekin uztartzen da, ikasleen behar eta interesak gero eta desberdinagoak baitira eta guztiei erantzun behar zaie.

Ikastetxeak aukerazko gai batzuk proposatzen ditu eta ikasleek euren artean aukeratu behar dute. Jarraitzen den prozedura honako hau da:

Apirilean mintegiek aukerazkoen eskaintza egiten dute. Saiatuko gara nolabaiteko oreka gordetzen aukerazko ikasgaien eskaintzan, proposamenean mintegi gehienek ikasgaiak agertuko direla bermatuz.

Horren ostean, aukerazko eskaintza ikasleekin tutoretzan (3. Mailan lan hau orientatzaileak burutzen du) lantzen da eta hirugarren mailako ikasleen gurasoekin bilera bat egiten da eskaintza azaltzeko.

Maiatzean aukerazko orria banatzen da eta ikastetxeko web orrian zintzilikatzen da eskaintza.

Ikasturte bakoitzeko ikasle eta talde kopuruaren arabera, aukerazko gehiago edo gutxiago emango dira.

2. EZ OHIKO NEURRIAK

2.1. Curriculumaren Norbanako Egokitzapena (CNE)

CNEa aparteko neurria da; beraren bidez, curriculumaren derrigorrezko elementuetan aldaketa garrantzitsuak sartzen dira, arloko, zikloko edo etapako helburuen zati garrantzitsu bat egokituz edo kenduz. Ohiko neurri guztiak erabili (urte bat errepikatu, arloko programazioak egokitu, indartze neurriak erabili, etab) eta nahikoa ez direnean erabiliko da neurri hau.

Curriculum egokitzapenen funtziorik garrantzitsuena, hezkuntza premia bereziko ikasle bati eskainiko zaion hezkuntza erantzuna zehaztea da.

Jarraitzen dugun prozedura hau da:

- Gure ikastetxea DBH independentea izanik, gure ikastetxera datozen premia bereziko ikasleak normalean diagnostikatuta etortzen dira. Hala ere orientatzaileak pedagogia terapeutikoko irakaslearekin batera hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen egoera aztertuko dute. Horretarako pauso hauek emanez:
 - Jatorriko eskoletako PT eta tutoreekin bilerak.
 - Berritzeguneko aholkulariarekin bilerak.

- Ordu-arteko eskolatzearen historia aztertu.
- Arlo desberdinetako gaitasun maila aztertu.
- Beharrezko ikusten denean, aldeztu aurretiko ebaluazio psikopedagogikorik ez dagoelako edo egon arren berria beharrezko ikusten dugulako, orientatzaileak, familiari baimena eskatuz, berritzeguneko aholkulariari balorazio psikopedagogikoa eskatuko dio.
- CNEa idazteko ardura orientatzailea eta PTarena izango da, arloetako irakasleen aholkularitzarekin.
- Orientatzaileak eta PTakCNEaren berri irakasle taldeari emango dio eta laguntza denborak eta lekuak zehaztuko dira.
- Arloko irakaslearena eta PTaren ardura izango da Curriculumaren egokitzapenaren aplikazioa.
- CNEa duten arloetako ebaluazioa txosten baten bidez azalduko da. Txosten hau idazteko ardura arloko irakasle eta PTarena izango da. CNE gabe ikasten dituen arloetan, ikastetxeko beste ikasleei egiten zaien balorazio berdina egingo zaie.
- Ikasturte amaieran, arloko irakasleak, PTak eta orientatzaileak CNEaren ebaluazioa egingo dute. Bertan ebaluazio irizpideen betetze maila zehaztuko da.

2.2. Curriculum anitzeko programa (Dibertsifikazio curricularra)

Curriculum-anitzasuneko programek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzea dute helburu. Programa horien hartzaileak hauek dira: behar den ebaluazioa egin ondoren curriculumaren edukiak, jarduera praktikoak eta arloak beste era batean antolatuta eman behar zaizkien eta etaparen oinarritzko helburu eta gaitasunak lortzeko metodologia espezifikoak behar duten ikasleak.

Programa hau DBHko 3. eta 4. Mailako ikasleentzat prestatuta dagoen indartze neurria da. Gure ikastetxea txikia izanik inoiz ez dugu dibertsifikazio talderik eduki, baina programa honetan egon daitezkeen ikasleak Tolosako Orixe instituturara bideratzen ditugu.

Jarraitzen dugun prozedura hau da:

Lehenengo ebaluazioaren amaieran, irakasle taldeak orientazio saileko aholkularitzarekin, dibertsifikaziora joateko ezaugarriak betetzen dituzten ikasleen lehen identifikazioa egiten du. Ondoren tutoreak eta orientatzaileak gurasoei programa honen berri ematen die. Programa honetan sartzea erabaki ezker, otsailean Tolosako Orixe institutuan aurre-matrikulazioa egiten dute.

Ekainean, ez ohiko ebaluazioa egin ondoren, irakasle taldeak eta orientatzaileak ebaluazio psikopedagogikoa egiten dute eta Orixe orientatzaileari bidali.

2.3 Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektua (HBSP)

Gizarte edo kultura zailtan dauden edota eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleekiko hezkuntza ekintzak zehazten dituzten proiektu inklusiboa da.

Programa honen hartzaileak izango dira:

- DBHko 1. Eta 2. Mailan matrikulatutako 13 edo 14 urte dituzten ikasleak eta 2. Mailan matrikulatutako 14 urtekoak.
- Eskolan atzerapen handia izan behar dute, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen horrek gizarte egoera kaltetuetan egoerarekin loturik egon behar du.
- Salbuespen gisa 15 urteko ikasleak ere sar daitezke programan.

Jarraitzen dugun prozedura hau da:

- Apirilean, gure ikastetxera atxikitutako L.H. 6. Mailako tutoreekin bilera bat egingo da programa honetan zehaztutako ezaugarriak dituzten ikasleen lehenengo identifikazioa egiteko.
- Maiatzean, berritzeguneko aholkularitzarekin eta deialdiaren baldintzak betez gero, orientatzaileak proiektua egingo du.
- Irailean, proiektua onartzen badigute, familiarekin bilera bat egingo da proiektuaren xehetasunak azaltzeko.
- Urriaren 15 baino lehen, HBSP proiektua arduratzen diren irakasleak, orientatzailearen aholkularitzarekin, ikasle bakoitzaren Banan Banako Plana egingo dute.
- Maiatzean, proiektuaren memoria egingo dute irakasle arduradunak orientatzaile eta ikasketa buruaren laguntzarekin.

2.4. Hizkuntza Indartze Programa (HIPI)

Euskal hezkuntza sisteman sartu berriak diren ikasleen txertaketa bideratzea, eskola inguruan ahalik eta azkarren eta baldintza hoberenetan integratzeko litzateke programa honen helburu nagusia.

(Jarduerak eta prozedurak ikastetxeko hizkuntza proiektuan zehazten dira)

2.5. Bidelagun Proiektua.

Proiektu honen helburu nagusia gure ikasleak (DBH 1 eta DBH 2koak) ikaskuntza prozesuan emaitzak hobetzea da, hezkuntza desabantaila egoeran dauden ikasleen aukerak handituz eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei lagunduz eta estrategiak emanez.

Horretarako, laguntza eta bitartekoak jartzen dizkiegu ikasleei, batik bat ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez dutenei, denbora osagarri bat erabil dezaten beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.

Bidelagun programak bost orduko dedikazioa izango du astean, horietatik, lau ordu ikaslearekin zuzenean emango dira eta beste ordua jarraipena egin eta ikastetxeko irakasleekin koordinatzeko.

Laguntzeko programa begiraleekin egingo ahal den neurrian ikasle ohiekien.

Proiektuak helburu hauek ditu:

- Ikasleengan arlo instrumentaletako ezagupen eta trebetasunak garatzea.
- Ikasle eta beraien familiak, ikasketek etorkizunerako duen garrantziaz jabetu araztea.
- Ikasleari eskola orduz kanpo gida eta orientazio pertsonalizatua eskaintzea.
- Denbora antolatzeko beharrezko diren ohitura eta jokaerak garatzen laguntzea.
- Lanaren eta esfortzuaren beharraz jabetzea.
- Suspentsoen mundutik ateratzeko bitartekoak eskainiz, beraien autoestimua garatzea.
- Lan mundurako prestakuntza egoki bat izateko DBHko titulua lortzeko pausoak urratzea.
- Ikas estrategiak erabiltzen ikastea.

Jarraitzen dugun prozedura:

- Apirilean, gure ikastetxera atxikitutako L.H. 6. Mailako tutoreekin bilera bat egingo da programa honetan zehaztutako ezaugarriak dituzten ikasleen lehenengo identifikazioa egiteko.
- Maiatzean, deialdiaren baldintzak betez gero, ikasketa buruak eta orientatzaileak proiektua egingo dute.
- Ekainean, proiektua onartzen badigute, monitorea bilatzen da.
- Irailean familiekin bilera bat egingo da proiektuaren xehetasunak azaltzeko.
- Maiatzean ikasketa buruak eta orientatzaileak proiektuaren memoria egingo dute.

⚡ Orientabidea eta tutoretza

Orientazio arloaren eduki multzoak hauek dira:

Garapen pertsonala

Lanbide orientazioa

Besteekiko harremank komunikazioa, talde lana eta gatazken konponketa

Ikaskaste prozesuak

⚡ Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

Hizkuntza eredua:

D eredua da eskaintzen dena

Eleaniztasuna:

Bi hizkuntza ofizialak lantzen dira; batetik, ikasketak euskaraz egiten dira eta, bestetik, gaztelania, arlo bezala lantzen da.

Ingelesa arlo bezala eta ikasgai baten (Soinketa) komunikaziorako hizkuntza bezala maila guztietan lantzen da; Gizarte, Fisika-Kimika eta Plastika, berriz maila batzuetan. eta Frantsesa 2. Mailatik aurrera etapa osoan aukeran eskaintzen da.

Ingelesari begira ekintza osagarriak bultzatzen dira: atzerrian egonaldiak, Finlandiako ikastetxe batekin elkartrukea ...

⚡ Prestakuntza eta berrikuntza

Gure ikastetxean, printzipioak, baloreak eta nortasun ezaugarriak atalean jasotako ondorengo atalari jarraituz:

- *Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beraien oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko.*

hezikuntza hobetzeko alde ezberdinetan programatzen eta ezartzen diren hainbat proiektuetan parte hartzen du.

ULIBARRI PROGRAMA

Ulibarri programan 1997-98 ikasturtean sartu ginen hizkuntzen normalkuntza sustatzeko asmoz. 4 urtero plan desberdinak burutu ditugu geure helburuak bermatzen joateko. Azken 4 urtetarako plana 2013-14 ikasturtean egin genuen eta beraz, 2018ra arte ikastetxea arnagune sendo izaten jarraitzea litzateke. Hau da: ikastetxean euskararen erabilirena mantentzea eta kalitatea ere bermatzea.

APRENDIZAI KOOPERATIBOA

2003-04 ikasturtean Kataluniako, Bartzelonako, Juan Manuel Zafra ikastetxe publikoko Victoria Ibañez irakasleak eskaini zituen **Lan Kolaboratiboa eta ebaluazio hezigarriaren** inguruko saioak klaustroak jaso zituen. Geroztik Lasarteko Berritzeguneak Aprendizai Kooperatiboari buruz antolatu dituen Mitegietara irakasle batzuk joan izan dira eta 2011-12 ikasturtean metodologia hori ezarria duen Anoetako ikastolako arduradunak azalpen saioak eskaini zizkion Klaustroari.

AGENDA 21

Lan egiteko proposamen berritzailea da, irakasleriak, ikasleriak eta komunitateko gainerako langileriak ingurumen arazoak aztertu eta ulertzera bultzatzen duena eta herritar bezala gizarte justuagoaren, ekologikoagoaren eta jasangarriagoaren alde jarriko dena.

Azkeneko urteetan landutako gaiak hauek izan dira: bioaniztasuna, energia jasangarriak eta energia eta mugikortasuna.

ADIMEN EMOZIONALA

Pertsonen arteko harremanetan dauden sentimenduak bereizteko eta zintzotasunez jokatzeko gaitasuna da.

Foru Aldundiak antolatutako formazioa 09-10 ikasturtean jaso genuen eta eguneroko jardueran aplikatzen dugu. Koordinazio horizontaleko saioretan-Orientatzaileak mailako tutoreekin egiten dituenak-urtero berrikusten da.

ELEANIZTASUNA

2011-12 ikasturtean, Ingelesa eta Gaztelania sendotzeko, Hizkuntza Marko Hirueledun programan sartu zen gure ikastetxea. 2014-15etik aurrera, berriz, eleaniztasun proiektuarekin jarraipena eman zaio. Euskarari lehentasunezko trataera emanez, atzerriko hizkuntzetako gaitasun linguistikoetan aurrerapena lortzea da helburua.

EUROPAKO BESTE IKASTETXEEKIN HARREMANAK

Gure ikastetxea, ikasleek atzerriko hizkuntzak hobetzeko eta beste kultura batzuk ezagutzeko, irekia dago. Hori gauzatzeko Finlandiako ikastetxe batekin, TAIVALLAHTI COMPREHENSIVE SCHOLL HELSINKI FINLAND, elkartrukeak egiten ditu.

HEZKIDETZA

2013ko azaroaren 13 egunean egindako klaustroan, irakasleen gehiengoak Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzatik hezkidetzari eta genero-indarkeriari heltzeko jarduketa-proiektuak egiteko 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako deialdira aurkeztea onartu zuen. Proiektua onartua izan zen eta bigarren urtearen ekuatorea gainditua dugu jadanik.

Proiektu honen helburu orokorrak hauek dira:

- Egun gizartean ditugun genero estereotipoak gainditzea. Neska zein mutila izan, gizon zein emakume izan gure bidea egiteko eta gure izatea adierazteko askatasuna eta baldintzak izan ditzagun.
- Genero-indarkeriaren prebentzioa, antzematea eta dagokionean aurre egitea.

Lehendabiziko urtea formakuntza eta sensibilizazioari zuzendua egon zen. Bigarren urte honetan berriz planaren aplikazioarekin hasi gara, irakasleok formakuntzarekin jarraitu dugu eta ikasleekin zein gurasoekin hainbat jarduera burutu ditugu.

Hezkidetzaren gaineko zehaztasun guztiak Hezkidetza planean jasoak daude.

BIZIKIDETZA

Formakuntza 2005-2006 ikasturtean jaso genuen eta 2005etik 2010era lehenengo aldiz programa garatu zen.

Helburu nagusia: bizikidetzari buruzko kultura sustatzea, errespetuan, akordioetan eta elkarrizketan oinarritua. Ikastetxean denok gusturago eta hobeto sentitzea eta gatazkak bide baketsuetatik bideratzea.

Disrupzioa eta pasibitatea

Hasiera batean, bizikidetzarekin batera landutako gaia izan zen.

2011-2012 ikasturtean Lasarteko Berritzegunean antolatu ziren ikastaroetan ikastetxeko Ikasketa buruak parte hartu zuen eta, ikastetxean bertan, klustroak GEUZ taldeak emandako saiok jaso zituen. Gatazkak eraldatzeko teknikak gure eguneroko jardueran erabiltzen ditugu.

Azken bi ikasturtetan Ikasketa Buruak Lasarteko Berritzeguneak antolaturiko **“Golden 5”** mintegietan parte hartzen du. Bertan lantzen dena ikastetxeko partaide desberdinen arteko harremanak eta bizikidetza hobetzeko erabiltzen da.

IKT

Proiektu hau Hezkuntza Saileko egitasmoa da (IKT ikastetxe eredu proiektua).

Ikastetxeak IKT baliabideak hezkuntzako jardueretan txertatzeko urtero prestakuntza ikastaroak antolatzen ditu. Aurtengo ikasturtean, 2014-15, IKT heldutasun ziurtagiria eskuratzeko eskaera luzatu dio Hezkuntza Sailari eta ekainean ikastetxea ikuskatua izango da.

2014-15ean oinarritzko maila lortu zuen eta 2016-17 ikasturtean, berriz, maila ertaina.

TERTULIA LITERARIOAK

Irakasleen artean irakurzaletasuna sustatzeko formazioa antolatzen da

4.2. Antolamenduaren esparrua

⊕ Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa

□ Antolamendua funtzionamendua eta kudeaketarako oinarrizko irizpideak

Gure ikastetxearen antolamendua eta kudeaketa Hezkuntza Proiektu honetan hartutako hezkuntza-printzipioei, irizpideei eta helburuei lotuko zaizkie. Ikastetxeko antolaketak, parte hartze organoek eta zuzendaritzak ondoko ezaugarri eta oinarrizko irizpideak izango dituzte:

Eta baten antolatuko gara: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Irakasleak, ikasleak, gurasoak eta langile ez-irakasleak hezkuntza komunitatearen partaideak dira.

Elkarlana, elkarriketa eta komunitate osoaren parte hartze aktiboa dira funtzionamenduaren oinarri.

Parte hartzeko guneak ahalik eta hurbilenak izango dira gure ikastetxean. Informazio zuzena, irizpide eta proposamenen elkartrukea erraztuko dituzten guneetan oinarrituko da. Erabaki nagusiak dagozkien klaustro, batzorde, organo edo erabakiguneetan hartuko dira. Ahal den guztietan kontsentsuan oinarrituko dira eta adostasunik ez dagoenean bozketan.

Eskolako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak zehaztu eta garatuko ditu Hezkuntza Proiektu honetan jaso diren oinarrizko irizpideak.

* **IKUS IKASTETXEKO ORGANIGRAMAK.** Ikus 45 orrialdea.

• Egoitza.

Azpiegitura, ekipamendua eta antolaketa hezkuntza proiektuaren mesedetan egongo da, eta berori gauzatzeko eratuko dira esparru aproposak: ikasgelak, biltzeko eta informazioa trukatzeko gelak, bikoizketa gelak, gimnasioa eta kirol gunea, esperimentatzeko laborategi eta tailerrak, sortzeko esparruak, komunikatzeko...

Ikastetxearen ordutegia irekia izango da ordu akademikoez gain instalazioen erabilera anitza sustatzeko: ikasleen parte hartzea, gurasoen bilgune... Honen erabilera ikastetxeko AJA-n zehaztuko da.

Eraikinen antolaketan erabiltzaileen funtzionaltasuna, eraginkortasun pedagogikoa eta erosotasuna lehenetsiko dira. Bestetik, arreta berezia eskainiko diogu inguruari eta horren zaintzari (apaingarriak, berdeguneak, landaretza, berziklaia). Iraunkortasuna eta ekologia irizpideak kontuan hartuko dira oinarrizko printzipio gisa.

Hezkuntza komunitate osoak ikastetxea bere sentitzea bilatuko dugu. Berezi ikasleen parte hartzea sustatuko da eraikinaren ezaugarriak eta zehaztapenak erabakitzerakoan. Ongi izatea eta giro atsegina lortze aldera komunitate osoaren parte hartze kudeaketan, eta, horretarako, propio sortuko den batzordean (Zuzendaritza).

- **Informazioa zabaltzea**

Barrura begirako informazioa eta kanpora begirakoa, tresna hauen bitartez egiten da:

Ikastetxeko web orria, <http://www.aralar-bhi.net>, eta, ikasgaiak lanerako erabiltzen dituzten blogak: orientazioa, soinketa, hezkidetzak, euskara, informatika, teknologia... eta **Classroom**. Aurretik zehazturako web horretan jasota daude.

Intraneta: barneko informazioa kudeatzeko irakasleen karpetak eta informazio orokorrarenak

Familia eta irakasleentzat INIKA programa erabiltzen da

Irakasleen ordutegiak egiteko PEÑALARA programa informatikoa erabiltzen da.

- **Eskola egutegia osatzeko irizpideak**

OOGri klaustroaren proposamenak, ikasleenak eta gurasoenak proposatuko zaizkio eta Organo horrek bat aukeratuko du. Beti, Hezkuntza Sailak urtero finkatzen dituen arauak errespetatuz.

- **Eskola ordutegia osatzeko irizpideak**

Lurralde Ordezkaritzako arduradunei eta Berritzeguneko espezialistei, ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopuruak eta behar bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak aditzera emango zaizkie. Ikastetxeak, hurrengo ikasturterako izango duen irakasle eta laguntzaile kopurua jakin ondoren, irakasleak bildu eta ikasgaien ordu-banaketa egingo da eta ondoren ikastetxeko ordutegia.

Bestalde, Orientazio mintegiak PT eta laguntzailearen ordutegia egingo du.

⚡ Parte hartzeko eredua

☐ Gurasoen eta ikasleen parte hartzea

Gela-bilerak dira ikasleek eta gurasoek parte hartzeko oinarrizko guneak. Gela bakoitzeko tutorea edota ekipoko beste irakasleak gurasoekin edo ikasleekin elkartzeko dira, eta horretarako gune eta denbora tartek zehaztuko dira. Bertan, ikastetxeko kudeaketa eta gelako martxa izango dira aztergai.

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean, irakasle eta langile ez irakasleekin batera, ikastetxeko guraso eta ikasleek parte hartuko dute. Lotura zuzena bermatzen da horrela parte hartze zabal eta oinarrizkoenetik (gela) ikastetxeko erabaki nagusiak hartzen diren guneraino (OOG), joan eta etorrian.

Ikasle eta gurasoak irakasle eta langile ez irakasleekin batera batzordeetan izango dituzte lankidetzarako beste guneak : ekonomia, elkarbizitza, jangela... bertan landuko dira, gero proposamenak OOGra eramateko.

☐ Irakasleen koordinazioa

Irakasleek bi gune garrantzitsu izango dituzte pedagogia koordinaziorako: batetik orientatzailearekin bilduko diren mailako tutore ekipoak, ikastalde eta gela beretan diharduten irakasleen arteko koordinazioa ziurtatzeko; bestetik, mintegietako ekipoak, jakintza arloka curriculumaren diseinu eta garapenari heltzeko.

Klaustroa bilduko da eskola osoari dagozkien gaiak jorratzeko eta erabakiak hartzeko. Oro har, irakasleek etapaka jardungo dute.

Era berean interes gaien arabera irakasleak bilduko dira proiektu berriak hausnartzeko.

• **Irakasle eta organoen arteko koordinazioa edo parte hartze eredua**

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan irakasle eta organoen arteko koordinazioa eta elkarlana, nagusiki, mintegi barneko eta mintegien arteko koordinazioaren bidez Pedagogi Batzordean ematen da,

- Irakasgai bera edo "afina" ematen duten irakasleek Mintegia osatzen dute. Astero elkartzen da organo hau eta elkarrekin bildu ahal izateko gunea ahalbideratzen da ohiko ordutegiaren barruan.
- Zuzendaritzak eta Mintegi-buruek osatzen dute Pedagogi Batzordea. Organo honek, mintegien arteko koordinazio pedagogikoa eta ikastetxeari buruzko informazioa bideratzen du.

- Klaustroari, bere ohiko eskumenak kendu gabe, Pedagogi Batzordearen bitartez hainbat erabaki hartzen ditugu, joan-etorriko bidea eginez, guztien iritzia eta ekarpenak jasotzeko aukera ematen dituelako. Hala nola, erabaki pedagogikoak, eguneroko jarduera antolatzeak, ekonomiaren kudeaketa...
- Pedagogi Batzordea, bai Klaustroan eta baita Ordezkaritza Organo Gorenean (OOG) mintzagai edota eztabaidagai izango diren gaien jakitun izaten da.

□ Zuzendaritza

Ordezkaritza Organo Gorena da eskola osoari dagozkion erabaki nagusiak hartzeko bilgunea. Bertan bildutako ikasle, guraso, irakasle eta langile ez irakasleek, ordezkatzen duten taldearen edo batzordearen iritzia helaraziko, eztabaidatuko eta dagozkien erabakiak hartuko dituzte.

Zuzendaritza Taldea eguneroko kudeaketaz arduratuko da eta irakasleen arteko koordinazioa sustatuko du.

⬇ Bizikidetz

BIZIKIDETZA ESKOLAN

Helburu nagusia: bizikidetzari buruzko kultura sustatzea, errespetuan, akordioetan eta elkarrizketan oinarritua. Ikastetxean denok gusturago eta hobeto sentitzea eta gatazkak bide baketsuetatik bideratzea. Beste helburu batzuk berriz ondorengoak izango dira:

- .-Gelako giroaren kudeaketarako trebeziak ikasi eta horietan trebatu eta gelan ematen diren jarrera desegokiak ekiditzeko estrategiak inplementatu, horrela:
- .-Ikasleen artean errespetuzko giroa indartu
- .-Bitartekaritzaren jarraipena eta zabalkuntza bultzatu
- .-Ikastetxeko kide guztiak baloratuak, entzunak eta partaideak direla sentiarazi
- .-Barne Araudia, ikasleen eskubide eta betebeharrak eta gure ikastetxeko gatazkak kudeatzeko prozedurak uztartu
- .-Aurretik aipaturiko helburu horiek guztiak ondoko konpetentzia nagusiak garatzen lagunduko digute: "elkarrekin bizitzen ikasi"; "norbera izaten ikasi" eta "komunikatzen ikasi"
- .-Beste ikastetxeetako esperientzien inguruko informazioa jaso eta elkartrukatu.

Egutegia eta ordutegia

Ikasturtean zehar egingo dugu.

Kanpoko jarduerak: **GOLDEN 5** ikastaroa Lasarteko berritzegunean

Barruko agentea

Arantxa Elorza

Balorazio prozesua

Ikasturte bukaeran

ELKARBIZITZA PLANA

HELBURUAK

- Bizikidetzari buruzko kultura berria sortzea, errespetuan, akordioetan eta elkarrizketan oinarritua.
- Ikastetxean denok gusturago eta hobeto sentitzea eta gatazkak bide baketsuetatik bideratzea. Gatazkei era baketsu eta positiboan aurre egiten ikastea (gatazkak giza harremanei estuki lotutako prozesuak dira, kontua ez da gatazkarik ez izatea baizik eta gatazkak era egokian kudeatzea).

1.- Gure arautegia ez da izango eredu zigortzaile hutsa

Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan oinarrituta egindako gure Ikastetxeko Barne Araudiaren 4.2.1 atalean jasotakoa erabiliko da.

“4.2.1 Jokabidea zuzentzeko bide adiskidetsuak (42.art.).

Neurri zuzentzaile punitiborik erabili gabe bide alternatiboak erabilia zuzentzeko ahalegina egingo du Zuzendariak edota dagokion irakasleak”.

Erabili beharreko prozedura atal horretan garatuta dagoena da.

Bide adiskidetsuetatik arazoaren konponbidea lortuko ez balitz, kaltea eragin duenari OOGnak onartutako eta aurretik aipatutako araudiak dioen neurri zuzentzailea aplikatutako zaio.

2.- Estructura

ELKARBIZITZA BEHATOKIA

Era honetara osatua:

- Orientatzailea
- Guraso bat (permanenteko kideetako bat)
- Zuzendaritzako kide bat
- Irakasle bolondresa
- Ikasle bat
- Beharren arabera eta arazoa ikasle batekin denean, ikaslearen tutorea partaide izango da.

Eginkizunak: Ikasle eta gurasoentzat galdeketak prestatu

Datuak bildu, aztertu eta ondorioak atera

Arazoak detektatu eta konponbidea bilatzeko pausoak ematen hasi.

Zure seme-alabek beste ikasleekin dituzten harremanetan (elkarbizitza) gora-beherak sumatuko bazenitu, honako helbide hau ere erabil dezakezu:
aralarbhizikidetz@gmail.com

DISZIPLINA BATZORDEA

Honako kide hauez osatua:

- Irakasle bat: behatokiko kidea ez dena.
- Zuzendaria.
- Ikasketa burua.
- Ikaslea behatokikoa ez dena.
- Ikasle bati buruzko neurriak hartu behar direnean, **ikasle berak** gertatutakoaren berri emateko aukera izango du. Dena den azken hau ikaslearen erabakia izango litzateke.
- Zenbait kasutan bitartekaritza konpontzailea erabiliko da. Modu honetan neurri zuzentzailea ezartzeko prozedura bertan behera utziko da.

Horretarako bete beharreko baldintzak hauek izango dira:

- Gatazkan dauden pertsonen bitartekaritza prozesuan aktiboki parte hartzeko gaitasuna izan behar dute.
- Gatazka ebazteko benetako borondatea erakutsi behar dute.
- Bi aldeek fede ona izan behar dute.
- Erantzunkizuna hartzeko gaitasuna eta arazoa konpontzeko gaitasuna erakutsi behar dute.
- Jokabide bortitzik ez dute erakutsi behar.
- Ez du egon behar bi aldeen artean botere desorekarik.
- Bi aldeek, hartutako erabakiarekin gustura sentitu behar dute, bai mindua izan dena eta bai mina sortu duena.
- Prozesua aurrera emateko **bitartekariaren** laguntza izango dute.

Akordioa hautsiko balitz, Barne Araudia aplikatuko litzateke.

5. Indarraldia eta mantentzea

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN ERAGINKORTASUNA BERMATZEKO NEURRIAK (IRAUNALDIA)

Hezkuntza Proiektua beste hainbat egitasmoren bitartez garatuko da. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Ikastetxeko Curriculum Proiektua (Aniztasunari erantzuteko plana barne), Zuzendaritzaren Kudeaketa Egitasmoak, Antolaketa eta Jarduera Araudia, Urteko Kudeaketa Planak eta memoriak (Irakats jardueren programa, Elkarbizitza Planak, Tutoretza Planak, IKT Plana, Hobekuntza plana, Prestakuntza eta berriztapen plana, Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzen programak, Gelako Programazioak eta memoriak, Hizkuntza normalkuntza plana, ...), Hizkuntza proiektua, ... denak dira, bakoitza bere eremuan eta bere lan epean, Hezkuntza Proiektua zehaztu, egokitu, garatu eta gauzatzeko aukera eta lanabes. Egitasmo horiek guztiak diseinatu eta garatzerakoan Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan oinarrituko gara.

Eta, batez ere, egitasmo guzti horien jarraipena eta ebaluazioa gauzatzean, IHP-ko irizpide nagusiak izango dira iparrorratza. Dokumentu estrategikoan hartu den norabiderantz sinergiak sortzen ote diren, eta planteatu diren erronkei egokiro erantzuten ote dioten ikusi beharko da jarraipen eta ebaluazio prozesu horietan. Proiektua finkatu bitartean, bere jarraipenaz arduratuko den IHP Batzordea eratuko da (Zuzendaritzako kideek eta Batzorde Pedagogikokoek osatuko dute). Batzorde ezberdinek beraien helburuak IHPen hartutako ildoen barruan uztartzen ari diren aztertuko dituzte. Balorazioak kontuan hartuz egoki deritzon proposamenak jasoko dira eta IHP Batzorde orokorrean aztertu eta koordinatuko dira, beharrezkoak ikusten diren moldaketak proposatzeko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua gauzatzeko ikastetxeko baliabideak bertan lehenetsi diren ildoetara bideratuko ditugu. Baliabide funtzional urria izanik, lan denboraren kudeaketak berebiziko garrantzia izango du: irakasleen **koordinazio horizontala** eta **bertikalak** behar dituen lan orduak; etapetako koordinazioaren ardura hartuko duten pertsonen lan denborak; tutoretza behar bezala egiteko beharko dena, irakasleriaren prestakuntza eta berrikuntza pedagogikoa... posible gertatuko dira baldin eta, haietara, behar diren baliabideak, tartean denbora, bideratzeko gauza baldin bagara.

IKASTEKO ORGANIGRAMAK

ORDEZKARITZA ORGANO GORENA ETA BATZORDEAK

